



itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria (((35. zk))) Otsaila-Apirila 2017



2017-a ilusio doinuz dator

Ongizatea: errefuxiatuak eta berdintasuna jomugan
Lantaldea: egindakoak eta egitasmoak
Ibilbidea: Idiazabal-Urtsuaran



Agurra

Negua orain gutxi arte samur izan badugu ere, azkenaldian bere gogortasuna agerian utzi digu; ez dira falta izan hotza, euria eta izotza, eta horien lagun izan ditugu katarroa, gripea, ezta-rriko mina eta gainerako kalamidadeak.

Garaian garaikoa esaten dute, baina dagoeneko neguaren gogorak alde batera utzi eta udaberriko printzekin ametsetan gabiltzanak ez gara gutxi.

Eta gurean giroak laguntzen ez badu, zer esanik ez siriar errefuxiatuak dauden kanpamenduetan: ume, haur eta heldu, neguaren gordinenean, jaioterriko gerraren ankerretik ihesi, eta Europaren lotsa bihurtu diren kanpamentuetan abandonaturik; ez aurrera eta ez atzera daude. Itsasondoko Ongizate taldetik hainbat ekimen antolatu dira ahal den neurrian errefuxiatu hauei laguntzeko, baina batez ere, gizaki eta pertsona hauei babesa adierazi eta duintasunez Ongi Etorri Errefuxiatuak ozen esateko.

Urtean zehar herriko lan taldeek egin dituzten lanen zerrenda ere aurkezten dizuegu, eta aurten ere beste hainbat ekintza egiteko asmoa badago; bere ekarpena egin nahi duenak irekiak ditu lan talde hauen atean; www.itsasondo.eus web orrian ikus ditzakezue lan taldeon bileren akta guztiak.

Aurten, Itsasondora 28 herritar berri etorri zaizkigu bizitzera, bakoitza jatorri, asmo eta helburu ezberdinekin. Gure nahia da gure artean gustura sentitu daitezela eta herri hobe eta aberatsagoa egiten lagun diezagutela. Gure esku ere badago arrotz zaizkigun hauei atean zabaldu eta aukera bat ematea Itsasondon etxean bezala senti daitezen. Aurten guregana hurbildu zaizkigun herritarren adibide dugu Ander San Jose, eta elkarrizketaren atalean parte hartzeko prest azaldu denez, hobeto ezagutzeko aukera ederra duzue. Ongi etorri zuri ere, Ander!

Hurrengo alea udaberriarekin batera etorriko da. Beti bezala, saiatuko gara Itsasondo 2.0 zuen interesekoa izan dadin, eta esan ohi den moduan, ongi esanak hartu eta gaizki esanak barkatu.

Hurrengora arte. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04. **Haurreskola:** musika haurren garapenean.
- 05. **Eskola:** amestutako opariak.
- 06. **Gazteria:** ekintzak klik batean.
- 07. **Tipi-tapa / Jubilatua**
- 08-10. **Agenda 21:** parte hartze lantaldeak.
 - 11. **Ongizatea:** berdintasuna eta errefuxiatuak.
 - 12-13. **Ibilbidea:** Idiazabal-Urtsuaran.
 - 14. **Euskararen eguna**
 - 15. **Elkarrizketa:** Ander San Jose.
 - 16. **Aranzadi**
 - 17. **Informatika:** teknologia berriak.
 - 18. **Guraso elkartea:** gaztain jana eta Olentzero eta Mari Domingi
- 19-21. **Hemeroteka**
 - 22. **Natura eta errezeta**
 - 23. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
 - 24. **Oharrak. Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: Agur sagar beltzaran

Eskolako berriak eta gurariak: musikak sortzen ditun ingurumariak, umeen ametsetan dauden opariak, parkea berritzeko obra nabariak... beharrak bideratu ditun eskariak.

Elkarrizketatua da Ander San Jose bere burua aurkeztuz zabal eta luze, errefuxiatuen alde haizez haize ekimenak bultzatuz hainbeste lan klase, saiatzen gera baina kolpez ezin ase.

Intsektuen zelatan erne Aranzadi eta tailer modura hainbat ikastaldi, euskararen egunez ezin egon geldi, Urkiraino txangoa bidetxur ta mendi... talo pare bat janda gelditu naun/k ongi.

Udaleko berriak

2016. urteko azken hilabeteetan udaletxean tramitatu diren gai garrantzitsuenak hauek izan dira:

Erabakiak

- Udal osoko bilkurak egin dira irailaren 26an eta azaroaren 2an. Horretaz aparte, alkate dekretu bidez bere eskumeneko zenbait erabaki hartu dira.
- 2017ko ordenantzak aldatzea. Hondakin bilketa-trataera tasa eta ur hornidura zerbitzuko tasak %15 igotzea erabaki da. Igoerok egiterakoan, hondakin bilketa-trataera tasa eta ur hornidura zerbitzuaren kostuak kontuan izan dira, ahal den neurrian gero eta handiagoa den defizita estaltzeko asmoz.
- Ondasun Higiezinaren gaineko hirilur zergaren tarifak aldatzea erabaki da. Kasu honetan, Foru Aldundiak eraikinen balioak finkatzeko ponentziak aldatu dituzte, udalak ezartzen zituen tarifak aldatu ditu, hirilur zergaren kuotak ordaintzerakoan ahal den eragin txikiena izateko.
- Etxebizitza hutsen errekargua mantendu egiten da, eta errekargua aplikatuz kanpo izango diren egoeren zerranda aldatzea erabaki da.
- Aldatutako behin betiko tasa eta zergen zenbatekoak abenduaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, eta udaleko iragarki taulan daude ikusgai.
- Udaleko aurrekontuan nabaritutako gastu berriak edota handiagoak finantziazteko kreditu aldaketako bi espediente onartu dira, guztira.
- Mendibilgo ur hornidura zerbitzuko sarea berritzeko lehia-keta egin da eta obrak Lurkide Hondalanak enpresari esleitu zaizkio, bere proposamena izan delako merkeena. Lehenengo faseko obrak amaitu dira, eta egun, 2. fasean daude.
- Udalsarea 21 jasagarritasuneko udalerrien euskalsarean parte hartzen jarraitzeko konpromisoa berretsi da.

Alkate dekretu bidez erabaki hauek hartu dira:

- Obra baimen eskaeren bost espediente erabaki dira.
- Jarduera fisikoa sustatzeko Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak eskatzeko eginiko deialdia aprobetxatuz, udalak aurrera daraman TIPI TAPA programa gauzatzeko diru-laguntza eskatu eta lortu da.
- Udaletxean yoga ikastaroa emateko baimena eman da.
- Tipi-tapa programa 2016-2017 urtean ere martxan da; udaletxean asteartero elkartzen da 15 laguneko talde bat.
- Itsasondoko zenbait elkartet egiten dituzten ekintzak finantziazteko laguntzak onartu dira; guztira, 2.944,12€ko inportea eman da: Odol emaila elkarteari 225€, Jubilatutako elkarteari 2.719,12€.
- Hondakin, 3. hiru hilabeteko ur tasa, ibi eta estolderiko erroldak onartu eta kobratu dira.

Diru-laguntzak

Zenbait proiektu bideratzeko laguntzak lortu dira:

- Urkiko herri bidea konpontzeko 27.067,61€.
- Ur hornidura sarea berritzeko 18.928,50€.
- Haur, nerabe eta gazteen dinamizatzaile teknikariaren kontratazio kostoak finantziazteko 7.339,44€.
- Paisaiaren inguruko laguntza atalean, Eusko Jaurlaritzak 22.500€ko laguntza eman du.
- Murumendiko intereseko habitat proiektua 2016-2017 finantziazteko 30.675€ko laguntza eman du Foru Aldundiak, Agenda 21 deialdiaren arabera.
- Itsasondo 2.0 aldizkaria argitaratzeak sortzen duen gastua finantziazteko 1.500€ko laguntza lortu da.
- Lanbide langabezia zegoen langile bat kontratzeko laguntza eman du. Kontratazio gastuak %100 finantziatuko dira, eta jardunaldi osoan lau hilabeteko epean arituko da lanean, pintaketa lanak egiten.
- 2015ean eta 2016an jasotako zenbait diru-laguntza espedienteen justifikazioa bideratu da.

Biztanle erroldako datuak 2016ko abenduaren 31n

2016ko biztanle erroldako mugimenduak hauek izan dira: 2016ko urtarrilaren 1ean 658 biztanle zeuden.

Jaiotzak	Etorri direnak	Bajak	Joan direnak
6	57	-8	-65

2017ko urtarrilaren 1ean 648 biztanle daude erroldatuta. ■


Baliabide urriak dituzten bizilagunak

Diru baliabide urriak dituzten bizilagunei jakinarazten diegu, udal tasak, zati batean, ordaintzeko laguntzak eskatzeko aukera dutela. Horretarako baldintza bat honako hau da: bere diru sarrerak Profesio arteko Gutxieneko Soldata baina txikiagoak izatea (2017. urterako, hileko 707,60€). Laguntzek ur tasan eta zaborren zergan eragiten dute.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak eskatzeko eskabideak aurkezteko eperik ez badago ere, eskubidea eskabidea aurkezten denetik aurrera aplikatzen da.

Beraz, eskubidea izan dezaketen guztiei eskatzen diegu eskabideak ahal den azkarren egiteko.

Informazio gehiago udaleko gizarte zerbitzuetan. ■



Musika eta bere onurak hauren garapenean

Musikagintza giza fenomeno konplexua da, eta hori hainbat aldetatik azter daiteke, baina interesgarrietako bat psikologi zientzien ikuspegitik aztertzea da. Musikagintzan, askotariko prozesu psikologikoak aktibatzen dira, zeren eta sentimen eta mugimenduzko hainbat gaitasun konplexu garatu eta integratzeaz gain, zeregin biso-espazioetan ere gaitasun-maila handia behar da.

Azter dezagun zer dioten musikak garapen kognitibo eta soziopersonalean duen eraginaz. Musika-trebetasuna ez bezela, ez da unibertzala, dirudienez, ez baitute pertsona guztiek garatzen. Musikak adimenaren bidez dihardu; beraz, adimen musikala osatzen duten funtsezko elementu psikologikoak identifikatu behar dira. Musika ez da sentsazio atseginen multzo bat bakarrik, baizik eta prozesu kognitibo batzuk aktibatzen ditu, eta berari erantzuten dioten subjektuek ulertu egiten dute gehiago edo gutxiago.

Badirudi estimulazio sentsorialak garuneko neurona-konexioak aberastea eragiten duela. Hori guztia heziketa-arlorra ekarriz, ahalmen handiagoa esan nahi du garun funtzionamenduaren gaitasunetan, eta, beraz, garapen pertsonalean. Hain zuzen ere, badirudi musikalki trebatu gabeko jendeak eskuineko hemisferioa bakarrik erabiltzen duela musika entzuterakoan. Ezkerreko hemisferioari, besteak beste, hizkuntza eta kalkulu-gaitasunetan espezializatzea egotzen zaio, eta eskuineko hemisferioa musika prozesatzen den lekua omen da, gaitasun espazial eta artistikoetan espezializatzea egotzen zaiolarik. Horrek ez du esan nahi bi hemisferioek banatuta dihardutenik; alderantziz, elkarri eragiten diote, eta, gainera, lehen esan bezala, pertsona batek, musikalki zenbat eta trebatuago egon, orduan eta gehiago erabiltzen du eskuineko hemisferioa ere zeregin bat egiteko.

Bestalde, musikak gure zentzumenetan eta organismoan dituen eraginak onartuta eta egiaztatuta daude gaur egun: musikak gure egoera animikoa alda dezake, alaituz, kontsolatuz, baita sendatuz ere. Musikaren gaitasun terapeutikoa nerbioetako desoreka, edo bihotz-biriketako asalduek eta emaitzak onak dira. Horretaz musikoterapia arduratzen da, besteak beste, musikaren efektu lasaigarriak edo bizigarriak aztertzen dituelarik.

Gaur egun, haurrentzat ondorio fisiko onuragarriak egotzen zaizkio musikari: metabolismoaren azelerazioa, arnasketaren azelerazioa edo desazelerazioa, pultsazioetan eta odolaren presioan aldaketak, e.a. Eragin psikologikoak ere egotzen zaizkio; horien artean komunikazio hobea aipatzen da, baita identifikazio personal hobea, asoziazio-gaitasun hobea, gorputz espresio hobea, eta norberaren ezagutza eta irudi hobea ere. Halaber, garapen kognitiborako ere eragin onak egotzi izan zaizkio; musikak adimenaren zenbait funtzio garatzen ditu, oroimena adibidez, baita haurdunaldiko laugarren hilabetetik aurrera ere. Garbi dago musika eta entzumenaren estimulazioa beharrezkoak direla giza gaitasun eta ahalmenak ahalik eta ongien garatzeko. Horrela, helburua pertsonaren prestakuntza integrala hobetzea izango da.

Gaur egun onartua dago musikak baduela garunaren jardura integratu eta antolatze gaitasuna, eta esaten da ahalmen hori nabarmenagoa dela musika-estimulazio zazpi urte baino lehen hartu dutenen kasuan, zeren eta, dirudienez, garunak adin horretara arte du neurobiologoez deitzen duten plastikotasun zerebrala.

Azkenik, musika entzuteak eta interpretatzeak gaitasun motorrak, pertzepziozkoak eta kognitiboak garatzen ditu, eta aldi berean prozesu afektiboak eta sozializaziozkoak aktibatzen ditu, eta kultur esparru jakin batean sartzeko sistematzat ere balio du. Ez dugu ahaztu behar zenbait multzok, gaztetxoaren adibidez, bizi izandako musika-esperientziak eta hauek emozioen mailan duten eragina garrantzi handikoak direla, funtzio integratzailea baitute, gizakitalde jakin bateko kide sentitzearena barne. ■

Amestutako opariak

Aurten, Gabonetako oporraldietatik bueltan opari ezin hobek jaso ditugu eskolan.

Badira hiru ikasturte, guk amesten dugun eskolatik gero eta hurbilago egoteko hainbat aldaketa (handi zein txiki) egi-ten aritu garela.

Eskolan dagoeneko erabiltzen ez ziren material, altzari... aterata txukundu handi eman zen aurrena, eta gelen eremua zuriz margotu zen ondoren; horrela, lanerako giroa asko gozatu zen.

Bazen, ordea, buruan beti bueltaka genuen desio bat: espazioa lortzeko horma bat botatzea, erabilera antizeko gela handiagoa sortzeko.

Gabonetatik bueltan horixe da topatu dugun oparietako bat, eta ilusioz beteta gaude irakasle zein ikasleak.

Bestetik, iaz hasitako proiektuari bukaera ezin hobea eman zaio, eta haurrek diseinatutako parkea begien aurrean topatu dugu.

Parke zaharreko materiala erabiliz, moldatuz eta egokituz, gure ikasleen ideiak errespetatuz, sormenari eta jolas sinbolikoari leku ematen dion parke bat dugu.

Mila esker Olentzerori, Mari Domingiri, Itsasondoko Udalari, herriko auzolan taldeari eta hau posible egiteko lan handia egin duten denei. ■

Urkiye Herri Eskola



Lehen

Orain



Gaztelekuko ekintzak klik batean

2016-2017. ikasturtea indarrarekin hasi dugu gaztelekuan. Ostiralero ostiralero, neska-mutiko ugari bertaratzen da Karreapera, hezitzaileak prestatuturiko ekintzetan parte hartzera. Hona hemen, azken hiru hilabetean egin ditugun ekintzak:



Jubilatuak, egindako ekintzak eta aurrera begirako asmoak

tipi-tapa

Erorikoak saihesteko tailerra udaletxean

64 urtetik gorakoen artean erorikoak lesio eragile nagusiak direla eta, horiei aurre egiteko tailerra antolatu genuen udaletxeko lehen solairuan azaroaren 15ean, Ongizate batzordea, Osakidetza osasun zentroa eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin elkarlanean. 64 urtetik gorakoentzat eta horien familia edo zaintzaileentzat antolatu genuen tailerra. Erorikoen zergatia eta horiek saihesteko egin beharrekoak azaldu zizkiguten Korok (herriko medikuak), Arantxak (erizainak) eta Tomasek (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunak). Bizimodu osasungarria eta ariketa fisikoa egitearen garrantziaz ere aritu ziren. Tailerra saio bakar batean egin zen.



2017rako ekintzak

- PASEOAK. Asteartero, soinketaren ondoren, 17:00etan, plazan elkartu eta bakoitzak bere neurriko paseoak ematen ditugu.
- SOINKETA. Asteartero, irakasle batek lagunduta, udaletxeko lehen solairuan, 16:00etatik 17:00etara. Zeuk ere soinketa saio hauetara etorri nahi baduzu, udaletxean eman behar duzu izena eta 10€ko kuota ordaindu, urtarrietik apirila bitarteko saioengatik. Hurrengo saioak: urtarrilak 10, 17, 24 eta 31, otsailak 7, 14, 21 eta 28, martxoak 7, 14, 21 eta 28 eta apirilak 4.
- MEMORIA TAILERRAK. Bizi Nahi elkartearen, 18:00etan hasita, lagunartean gustura egon eta bata besteari lagunduz, garuna aktibo eta sasoiari mantentzeko ariketak ere egin ditugu. Benetan harrera ona izan duen tailerra izan da honako hau, eta jakin tailer hauek herriko bolondresak lagunduta egiten ditugula. Ongizate batzordeko prest gaudu 2017an ere jarraipena emateko, beraz, badakizue, ANIMATU! Hurrengo saioak: urtarrilak 31, otsailak 28, martxoak 28 eta apirilak 25. ■

jubilatuak

Bingoa

Hilero, azkeneko ostegunetan bingoa egiten dute Bizi Nahi jubilatuen elkartearen, arratsaldeko 17:00etan hasita. Urriaren eta azaroaren ere ez dute hitzordura huts egin, eta hantxe elkartu dira koadrilatxo bat. Lagunartean ederki pasatzen dute, eta horregatik, 2017an ere ekintza honekin jarraitzeko asmoa azaldu dute. Hori dela eta, idatzi honen bitartez, herriko jubilatuen bertan parte hartzea animatu nahi dituzte. Hurrengo hitzordua otsailaren 23an izango da, 17:00etan, Bizi Nahi elkartearen. Gerturatu zaitez!

Flashback topaketak zarautzen

Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza graduako ikasle talde baten proposamenetik hasi ziren topaketa hauek. Helburua jubilatuen eta gazteek elkartzeko da, horrela, euren arteko harremanak sendotzeko. Dagoeneko, pare bat topaketa antolatu omen dituzte, denak oso arrakastatsuak.

Azkeneko topaketan, gure herriko bost jubilatuen eman zuten izena. Goizean autobusa hartu eta Goierri bailarako jubilatuen Zarautzera joan ziren. Lehenengo, herritik bisita gidatu bat egin zuten eta udaletxean harrera egin zieten. Gero, denbora librean izan zuten eta pintxo batzuk jateko aprobetxatu zuten. Amaitutakoan, berriro guztiak elkartu eta kiroldegira joan ziren, eta bertan gazteek prestatutako bazkari ederra jan zuten. Jarraian, Zarautzko korua gozatzeko aukera izan zuten, eta gazteek opari batzuk zozketatu zituzten, dena giro ederrean. Ostean, dantza saioa izan zuten eta nekatu arte ibili ziren. Iluntzean, 20:00ak aldera, etxera itzuli ziren, egun ederra igarota. ■



Parte hartze lantaldeak: urratsez-urrats aurrera bidean



Herri bizitza

Uztailetik azarora bitarte egindakoak

Aurrekontuak

Herriko elkarteek diru-laguntzak jaso ahal izateko, honako dokumentazioa aurkeztu dute:

- 2016ko gastu eta sarreraren balantzea.
- Aurrera begira inbertsio proposamenen bat, baldin badute.

Euskara

- Euskara ikastaroak. Aurtan taldea ateratzea lortu da.
- Mural bat margotu da auzolanean, batez ere plazan euskararen erabilera bultzatzera bideratuta. Arbel bat ere badu muralak, non ume eta helduen akatsik nabarmenenak agertuko diren eta erderakada hauen bertsio jatorra beste aldean. Honen mantentzea eta erabilpena eskolarekin elkarlanean egingo da.
- Bideo lana. Euskararen erabilerearen inguruko parodia bat grabatu da eta talo festan proiektatu da.
- Mintzalaguna. Zeuden taldeetatik bakarra geratzen da martxan. 2017an indartu egin beharko da.
- Abenduaren 3rako (euskararen eguna): Korrika saioa eta hamaiketako egin dira aurten; datorren urterako beste egitarau bat jarriko da martxan.

Itsasondo 2.0 aldizkaria:

Zenbait aldaketa proposatu dira.

- Baserriko istorioak. Itsasondon baserri asko dauzkagula aprobetxatuta, horri buruzko informazioa izatea interesgarri ikusten da.
- Aspaldian kanpotik etorritakoei elkarrizketa. Nola ezagutu zuten Itsasondo, nola dagoen orain...
- Harrobienginguruko gaiak.
- Ibarre erreferente izan zen Itsasondon.
- Gaztetxeak ere izan du historia.
- Eskolako gorabeherak. Irakasleak, ikastolako mugimendukoak. Ikastolatik herri eskolarako bidea. Udalekuak.
- Itsasondo + Altzaga elkartuta.
- Ibasko errota.
- San Juango kontuak. Ermita...
- Gaztetxea eskola zenekoa, gero jangela, eskola txikiak...
- Elkarrizketak gustukoak dira, baina lan hori egiteko jende aproposa behar dugu, saltsero samarrak direnak eta elkarrizketa nola bideratu jakingo dutenak.
- Bestalde, komentatu da argazkien atala, diferentziak bilatzeko gustukoa izaten zela. Agian, erantzunak emateko beste bide batzuk ahalbidetu behar dira, ez soilik posta elektronikoa. Kaxak jarri daitezke Kaxintanen...

Egitekoak

2017an egitekoak

- Talde eragile guztiak erakarri eta parte hartu dezaten dinamika sortu.
- EUSKARA: Mintzalagun taldeari bultzada eman eta euskara ikastaroak mantendu. Korrika 2017 antolatu.
- HEZKUNTZA
- KIROLA
- Abuztuko jaiak, bai ala ez?

Agenda 21 | epe laburra

Lehentasan altuko egitasmoak

- Urteko kirol plangintza landu, adostu eta lana banatu eragileen artean.
- Azterketatik abiatutako plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko.
- Herriko taldeen arteko harremanak hobetzeko jardunaldiak antolatu.

Agenda 21 | epe ertaina

Lehentasan ertaineko egitasmoak

- Kirol ikastaroak antolatu.
- Herri krossa antolatu, herriko taldeak inplikatu.

Lurralde antolamendua

Uztailetik azarora bitarte egindakoak

- Plazako autobus geltokiko kotxeentzako aparkalekuak kentzea erabaki da.

Landa eremua

- Zubingo zabortegea: mantso, baina gaia aurrera doa. Garai bateko mehatzetako lur kontaminatuak jabetza pribatuan daude. Udalak ezin du erosi, bertan ezer egiteko aukerarik ez badu. Gaia Aldundiko mehatzetako sailari dagokio.
- Terrenoak erostea.
- Saguzarren zentsoa.
- Azaroan inauguratuko den PR bidea prestatu.
- Urkiko garai bateko eskola berreskuratzea erabaki da elkarte/aterpe moduan erabili ahal izateko. Ez da proiektu handirik egingo, pixkanaka gauzak konpontzen hasiko gara (adibidez, sukialdea).

Ur depositoetako tuberia

- "Alternatiben plana" burutu da. Plan horren laguntzaz proiektu zehatz bat aukeratu da. Proiektuaren lehenengo partea martxan da. Aurten 1. eta 2. faseak egingo dira. 1. fasea azaroaren erdialdean bukatu da eta 2. fasea abenduan bukatu zen. 3. fasea 2017an egingo da.

Herri bideen erabilpena

- Herribideen ordenantzetan mugak hobeto zehaztu dira.

Bizikleta gordailua

- Arautegi bat idatzi da eta gehieneko bizikleta kopuru bat egongo da. Kuota txiki bat ordaindu beharko da urtero. Trasteak gorde ahal izateko beste arautegi bat egingo da (bizikletekin hasiko gara).

Agenda 21 errepasoa eta dinamizazioa

- Ekintza batzuk bertan behera uztea erabaki da, eta gainerakoek egoera errepasatu/eguneratu da. Informazioa Agenda 21-en tresna informatikoan sartuko da.

2017 aurrekontuetarako inbertsio proposamenak

- Ur horniduraren 3. fasea egin beharko litzateke (baina proiektua ez dago bukatua eta aurrekontua zenbatekoa izango den ez dakigu) 50.000€.
- Ur kontadore sektorial batzuk aldatu beharko dira, bat aldatu eta berri bat jarri. Ggb 3.000€.
- Landa eremuko bideetarako: 10.000-15.000€.
- Baserri bideetan biondak jartzea: 12.000€.
- Kale Nagusia eta Beiti kalea batzen dituen eskaileratako jardinak itsusi eta utziak daude. Txukundu eta hobetu beharra dago.

Egitekoak

2017an egitekoak

- Urkiko elkarte/aterpean berrikuntza lanak.
- Kale Nagusia eta Beiti kalea batzen dituen eskaileratako jardinak txukundu.
- Zubingo zabortegearen problematika Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin landu.
- San Juan auzoko argiteria jartzen (3 farola) amaitu.
- Beko kaleko proiektua bultzatu, errepide nagusiarekin konexioa egiteko pausoak eman.
- Ur horniketaren berrikuntzaren 3. fasea burutu.
- Herri-bideen inbentarioa eta ordenantza.
- Naturaren aldeko ekimenak.

Agenda 21 | epe ertaina

- Lehentasun ertaineko egitasmoak
- Frontoiko dutxak egokitu eta erabilera arautu.
 - Etxebizitzen inguruko plangintza egin, hutsik dauden etxebizitzen alokairua bultzatzeko.
 - Beko kaleko errepidean espaloiak egin eta aparkamendu plazak antolatu.
 - San Juango ermita eta Santiago bidearen lotura indartu eta hobetu.
 - Igogailu edo eskailera mekanikoak jartzeko aukera aztertu (kostuak, mantenimendua... kontuan izanda).
 - Frontoiko irisgarritasun arazoak konpondu.



Ongizatea

Uztailetik azarora bitarte egindakoak

Festetako bokata jana

Aurten 415€ jaso dira eta diru honen erabilera ongizate lantaldearen esku geratu da.

Memoria tailerra

Hilean behin ematen da tailerra jubilatutako elkartean. 2017an ere jarraitzeko asmoa dago.

Errefuxiatuen inguruko lanketa

Aurtengo Herri Ekimeneko errifan dirua errefuxiatuen inguruko ekimenera bideratuko da.

Berdintasuna

Irailean, Emagin taldeak eskolako haurrekin matxismoaren inguruko lanketa egin zuen eta ateratako emaitzekin gustora agertu ziren irakasleak.

Azaroak 22an, herritarrei zuzendutako tailerra egin zen, hau ere matxismoaren inguruko eta Emagin-taldekoek bideratuta. 2017an berdintasunaren aldeko apustu "serioa" egitea erabaki da lan taldean eta aurrekontua handitu da horretarako.

Tipi tapa

Balorazioa oso positiboa. Ekintza ezberdinak txertatzen joan gara ekimenean: Gimnasia, Paseoak, Memoria tailerra, Hitzaldiak.

Dokumental/film saioak

Jendearen interesa pizteko lanketa sakona egin behar dela ikusten da. Dokumental eta film egokiak aukeratu eta beharrezkoa bada tertuliak antolatuko dira gai edo film-aren inguruan. 2017rako kanpoko zinea bi egunetan egitea adostu da: ekainean eta uztailean.

Harrera plana

Azaroaren 15ean egin zen 2. harrera eguna oso ondo atera zen, balorazio positiboa. Hobetzeko puntuak: Partehartzea handitzea batetik eta saioaren amaiera goxatzea bestetik. Liburuxka frantsesera itzultzeko beharra ere ikusi da. Partehartzaileak ere gustora geratu ziren eta beraien balorazioa: Herrian zehar buelta egun argiz egitea, jendearekin topo egin eta hauekin hitz egin ahal izateko. 2017ko lehen harrera eguna ekainaren 6an izango da, 18:00etan.

Aurrekontuak:

Larrialdirako diru laguntzak: 3.000€.

Eskuhartze diru laguntza: 16.000€.
Berdintasuna: 4.000€.

Elektrizitatea neurtzeko aparatua

Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileei jakinarazi zaie aukera dutela argiaren kontsumoa neurtu eta beharretara egokitzeko.

Egitekoak

2017an EGITEGOAK

- Dokumental film saioak antolatu.
- Desfibriladore ikastaroak antolatu.
- Errefuxiatuen ekimena aurrera atera.
- BERDINTASUNA: Eskolako haurrekin bi saio egin gutxienez eta herrian saio ezberdinekin jendearen sentsibilizazioa landu.
- TIPI TAPArekin jarraitu.
- HARRERA PLANA: Ekainaren 6ko eguna antolatu.
- 2017an Langabe eta langabetuen egoera landu.
- KZ guneari probetsu gehiago atera.

Agenda 21 | epe laburra

- Herriko medikuarekin bildu.
- Urteko kirol plangintza landu eta elkarrekin adostu.

Agenda 21 | epe ertaina

- Langabeak formatzeko ikastaroak bultzatu.
- "Lan-feria" antolatu.
- Etorkizunean herriko enpresek izan ditzaketen langile beharrak udalari jakinarazteko prozesua bultzatu.
- Gazteria eta Ongizate Sailak koordinatuta, drogomenpekotasunaren prebentzioaren inguruko ekimen bat bideratu.
- Gimnasio txiki bat antolatu.
- Gazteentzat etxebizitza sozialak bultzatu.
- KZguneari probetxua atera, ikastaroak emanez.

Gizarte justuago baten alde lanean

Berdintasuna | indarkeria matxista tailerra

Ongizate taldeak antolatuta eta Emaginaren esku-tik, azaroaren 22an helduei zuzenduriko Indarkeria Matxista lantzeko tailerra antolatu zen. Aurretik eskolako haurrei eman zitzairen berdintasunean oinarritutako tailerra. Bertan landu ziren helburuak hauek izan ziren:

- Indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea.
- Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea. Bai individualki martxan jarri beharrekoak eta baita kolektiboki eraiki beharreko erantzun, dinamika, alternatibak pentsatu.

Saioak ordu eta erdi iraun zuen eta 22 gizon-emakumekek parte hartu zuten. Sarrera modura azalpen teorikoak eman ziren, ondoren taldeetan jarri eta inguratzen gaituzten matxismo egoerak identifikatu ziren. Amaitzeko, taldeetan ateratako ideiak elkarbanatu ziren.

Balorazioetan, positibotzat jo zen belaunaldi ezberdinetako pertsonen parte hartzea, eztabaida polita eta iritzi elkartrukaketa aberatsa azpimarratzekoa izan zen. Atera ziren desoreka eta indarkeria egoeren artean, sexuen arabera lan banaketa, zaintzen ardura, heziketa ezberdina, gizonen pribilegioak eta hedabideek ematen dituzten eredu matxistak identifikatu ziren. Ondoren, horiei aurre egiteko estrategien inguruko ideiak jaso ziren.

Horrelako tailerren helburua herritar guztien sentzibilizazioa eta berdintasunean oinarritutako heziketa izanik, gizonen parte-hartze txikia da aipatzeko datu negatiboa. ■



Errefuxiatuak

2016. urtean, azken urteetako ildoari jarraituz, milaka eta milaka errefuxiatuen inguruko egoera dramatikoaren berri jakin dugu, eta hori jakinda, 2016ko ekainean, Ongizate batzordeak erabaki zuen siriar errefuxiatuei laguntza ematea, Bizi Ekin Ordiziako elkartearen bidez.

Bizi Ekin elkartearen egitasmoa zen Ordizian uztailearen 2an materiala batu eta Greziara eramatea, siriar herriari laguntzeko. Itsasondo herria bilketara atxiki eta ekainaren 24tik uztailearen 1era hau egiteko aukera jarri zen herrian. Uztaileko Ongizateko batzordean ekimenaren balorazio oso ona egin zen, eta gai honekin lotuta beste ekimenen bat egiteko ideiak biltzen hasi ginen taldean.

Hori horrela, Ongi Etorri errefuxiatuei ekimena garatu da Itsasondon, eta 2017rako hainbat ekintza antolatu dira. Bide batez, 2016ko abenduan errifak ere atera dira, ekimenari laguntza eta bultzada emateko.

- Otsailak 4: MURAL ERRALDOIAK. Auzo lanean herrian zehar muralak jartzea da egitasmoaren funtsa. Ondoren, jubilatutako elkartean hamaiketako eta argazki egilearekin tertulia egingo dira. Ekimen honek aipamen berezia merezi du. Bertan, auzo lanaren bidez, herriko hainbat puntutan Javi Juliok ateratako argazkien mural erraldoiak jarriko dira. Javi Julio 1978an jaio zen, gizarte hezkuntzan diplomaturia eta lanean aritua da, 2010ean argazkigintzan hasi zen arte. Gaur egun, argazkilari-kazetari freelance eran definitzen du bere burua, eta hainbat argazki lan eta dokumental egin ditu gai honen inguruan, baita erakusketak ere.
- Ekainak 17: PAELLA SOLIDARIOA. Paella solidarioa egingo da herritarrentzat, eta arratsalderako jolasak prestatuko dira. Egun osoan zehar, errefuxiatuentzako beharrezko materiala biltzea aurreikusten da.
- Ekainak 20: ERREFUXIATUEN EGUNA. Ekimen horiekin guztiekin ERREFUXIATUEI ONGI ETORRI esan nahi diete Itsasondoko Udalak eta herritarrek. Pertsona guztiak garelako/direlako ongi etorriak gure herrira. Gaur egun, Europako politikek ez dute errefuxiatuen sarbide legala eta segurua bermatzen. Milaka lagun euren jaioterrietan pairatzen dituzten gerrak, goseak eta pobrezia atzean uzteko ihesean Europara iristen saiatzen dira, eta beraien egoera dramatikoak bihurtzen da. Horren guztiaren aurrean, Itsasondoko Ongizate batzordeak keinu tiki bat egin nahi izan die, eta muralen bidez, irudi bidez, herriak gerturatu, herritarren arteko lankidetzara bultzatu eta euren minarekin bat eginez, pausoak eman. ■



Idiazabal-Urtsuaran

Zelaa ondotik, Lobioko aldapan gora, begiralekuraino igo. Aurrera egin Agirreko Santa Isabel ermitaren albotik, bideari jarraitu Iruingeneraino; Santa Barbara magaleko pista hartu eta, Segura muga ondotik, Albitzetako lepora jaitsi; Garna atzetik joanez, gainerari eutsi Zorroztarriko tumulura iritsi arte. Urtsuarango bailara osoa ikusgai dela, Etxeberri eta Pagoetatik Urtsuaranaino jaitsi.

Itzultzeko, kaminoa hartu eta, Ola paretik pasatu eta gero, Olaberrietan, zubitxoa igaro eta ezkerreko bidea hartu; Segurako galtzada zaharra da. Landerregi parean, Iruingoenera jaitsi eta hasierako bidetik itzuli herrira. ■

Iraupena: 3 ordu eta erdi

Ibilbidea:
Idiazabal-Urtsuaran,
2 ordu eta 15'
Utsuaran-Idiazabal,
ordubete eta 15'





01 San esteban ermita



02 Gorridi



03 Landerrea



04



05 Etxeberri



06 Santa Engrazia Eliza



07



08 Olea



09 Urtsuarango Galtzada



10 Iruin

Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3a, alegia, 2016an larunbatez egokitu zitzaigun; eta Itsasondon, gainera, Talo Festarekin bat egin zuen aurtengoan. Hori aitzakia hartuta, egitarau mardula osatu genuen. Goizean, egunari indarrez ekin eta hotzari aurre egiteko, "euskararen aldeko binakako krosa" antolatu genuen herrian zehar. 11:00ak aldera plazaatik abiatu eta musikaz girotuta, haur zein heldu Beko Kaleko landaraino jaitsi ginen korrika, hori bai, bakoitza bere erritmoan. Bertan, buelta hartu eta bide gorrian barrena, berriro ere itzulerako bideari ekin genion, helmuga plazan baikeuen. Ondoren, hamaiketako gozo-gozoa pres-tatu ziguten indarrak berritzeko. Esan behar da parte-hartzea anitza izan zela, eta beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu bi-nakako krosean parte hartu zuten guztiei.

Arratsalde osoan zehar, Urkipe eskolan egindako esku-lan ikusgai izan genituen haur-txokoan. 19:00ak aldera, be-rriz, Talo Janari ekin genion. Urtero moduan, taloak egin eta egin aritu ginen jenero guztia amaitu zen arte. Talo Janak zi-harduen bitartean, Euskararen aldeko Sketcha proiektatu ge-nuen frontoian. Sketch horretan, euskarari herriko plazan ematen zaion erabileraren inguruko parodia bat egin zuten zenbait guraso eta haurrek: "Euskaraz haurrei eta txakurrei bai, baina gurasoen artean zergatik ez?" Arrazoi galanta! "Beraz, badakizue, herriko plazan ere gurasoen artean euskaraz! Zuek baitzarete denari so dauden haurren eredu". ■

Itsasondoko Euskara Batzordea



Ander San Jose

Lazkaon jaio zen, 1973an. Zortzi urte zituela Donostiara joan zen bizitzera familiarekin. Geroztik, Lleidan eta Andoainen ere bizi izan da, eta urritik Itsasondon bizi da.

Lehen Hezkuntzako irakaslea da eta gaur egun Gabiriko eskolan lan egiten du.

Pandero jolea da eta Idiazabalgo Joseba Iparagirre soinu jolearekin batera Euskal Herrian barrena ibili izan da. Musikaren munduan Esne Beltza taldekoak ezagutu zituen eta dagoeneko zortzi urte daramatza beraiekin lanean: muntaketan, instrumentuekin eta abar laguntzen die.

Itsasondon, azaroko Harrera Planaren baitan egin genuen txangoan ikusi genuen. Kanpotarren artean euskaldun bakarra, irrifartsu eta jator.



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Urrian.

Non bizi zinen lehen?

Berez Lazkaon jaiotakoa naiz, zortzi urte nituela nire familiarekin Donostiara joan nintzen bizitzera krisi garaian eta gero nire kabuz Lleidan eta Andoainen bizi izan naiz. Andoaindik etorri nintzen Itsasondora bizitzera.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Donostian eta inguruan oso zaila da bakarrik bizitzea, oso garestia da, eta ez neukan gogorik pisua konpartitzeko.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Ikeako muebleak montatu behar izan nituen; ez nuen ez bukatu, koltxoia lurrera bota eta han lo egin behar izan nuen.

Zer lanbide duzu?

Lehen Hezkuntzako irakaslea naiz; aurtien Gabirian nago lanean.

Zer nabari duzu faltan Donostiatik?

Lagunak, kaleko erraztasuna, denden eta tabernen aukera...

Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

Behe lainoa eta zuntz optikoa ez dela iristen.

Eta zer duzu gustuko?

Iritsi eta kotxea aparkatu dezakezula arazorik gabe; hori Donostian ezinezkoa da.

Zein zaletasun dituzu?

Irakurri, mendian ibili, bizikletan ibil ...

Janari bat.

Edozein, ezin bat aipatu baina ez naiz oso gozozalea.

Itsasondoko/Goierriko gustuko txoko bat.

Altzagarate.

Amets bat?

Bizimodu zoriontsua izatea.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Urtegun batean lore sorta bat oparitu zidatenean. Ez naiz oso lorezalea, baina sorpresa hartu nuen, oraindik gogoratzen naiz (barreak).

Zeri diozu beldurra? Eta zer gorroto duzu?

Osasun faltari diot beldurra, eta gorroto dut nire burua sare sozialetan topatzea, jakin gabe.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Lagunekin elkartzak eta bai familiakoak eta bai ingurukoak ondo ikusteak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Leku askotan, ez daukat aurreiritzirik edozein lekutan bizitzeko. Mundua oso zabala da, leku asko daude ondo bizitzeko. ■

Biodibertsitatea eta ondare naturala bultzatu beharreko altxorrak



Intsektuen hotelak Itsasondon

Aurreko ale batean intsektuek gure gizartean sortzen dituzten onurei buruz hitz egin genuen, baita herriko txikiekintsektuentzako hotelak sortzeari buruz ere.

Azkenean, 2016ko urriaren 19an jarduera hau errealitate bihurtu zen. Egun horretan, intsektuetan aditua den Jon Ander Galarraga biologoa gonbidatu genuen Itsasondoko eskolara. Jon Anderrek intsektuei buruzko informazio interesgarria eman zigun jolas bidez. Ondoren, gela kanpoan, jadanik eraikita eta eskolako baratzean kokatuta genituen intsektuen hoteletako gelak betetzeko materiala biltzeari ekin genion: adarrak, harriak, belarrak... eta nola ez, intsektuak. Elkarlanean, eskolako baratzean intsektuen hotel ederrak eraiki genituen!

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Gusi, "hotel" hauen diseinuaren eta eraikuntzaren buru izategatik.

Gure ondare naturala berreskuratzeko lanean jarraitzen dugu

Badira hainbat urte Itsasondoko Udala bertako habitata naturalak berreskuratzeko lanean hasi zela. Murrumendi inguruak korridore ekologikoaren ikuspuntutik duen garrantzia kontuan hartuta, esfortzu berezia egin da toki honetan: lur-sailak bereganatu dira kudeaketarako akordioak bilatuta edo erosita, eta kanpoko espezieak bertakoengatik ordezkatu dira baso naturalak indartuz (hariztiak, pagadiak...).

Baina, ezinbestekoa da jarduera hauek gainerako inguruetara zabaltzen jarraitzea; zenbat eta baso naturalen orbaina jarriagoa izan, orduan eta ekosistema konplexu eta aberatsagoak izango baititugu.

2016. urtean hiru lur-sail gehiago bereganatu dira Zubiñerreka inguruan. Lur-sail horietan Pinus radiata espeziearen landaketa zaharrak zeuden, eta bakanketa teknikaren bidez –lurrari eta gainerako landarediari kalte txikiena eragiten dion teknikaren bidez, alegia–, pinu aleak erretiratu dira eta bertako landareak bertan utzi dira. Orain, lur-sail horietan, bertako basoa berreskuratzen laguntzeko, zuhaitzak landatuko dira: haritzak, lizarrak, astigarrrak, e.a.

Apurka-apurka, ondare naturalaren kontserbazioa zein herritarren bizi kalitatea hobetuko duen ingurua sortzea da gure helburua. ■

2017rako teknologiak ekarriko diguna

Urtero egiten dira hurrengo urteak teknologikoki ekarriko dizkigun berrikuntza eta gailu izar izango direnen zerrenda. Beste aurreikuspen askoren moduan, ordea, horretan geratzen dira. Ez dakit dagoeneko inor gogoratzen ote den “google glass” famatuez edo gure bizimodua aldatuko zutela zioten “sedway” famatuez. Datorren urtean errepatatuko dugu eta ea zerbaitetan asmatu ote dugun.

Dronak

Badira urte batzuk gailu hauek gure merkatuetan ditugula, baina batez ere, argazkiak ateratzeko eta gure denbora libererako erabili izan ditugu (zoritzarrez, gerrarako ere erabili izan dituztela ezin ahaztu). Baina, argi dago beste erabilpen askotarako prest daudela, baldin eta beraien erabilera leku publikoan arautzen baldin bada. Amazon enpresa erraldoia eta banaketako beste hainbat enpresa ere merkatu honetan oso interesatuta daude. Ea zer nobedade ekartzen dizkiguten.

Adimen artifiziala

Google, Apple, Facebook, Samsung eta beste hainbat enpresa “laguntzaile pertsonalak” garatzen dabiltza. Horien helburua da erabiltzaileei eguneroko zereginetan laguntzea. Orain arte gehienbat telefono mugikorretan garatu izan badira “laguntzaile pertsonal” hauek, uste dugu laster izango direla telebista, ordenagailu eta beste gailuetan ere.



Ordenagailu bihurgailua merkatua jaten dabil ordenagailu eramangarriari

Microsoft Surface Pro 4 ordenagailu eramangarrien etorkizuna izan daitekeela uste dugu. Potentzia ondu du, ukimen pantaila eta tablet moduan edo ordenagailu moduan erabil daiteke, teklatura jartzen diozun edo ez kontuan izanda. Baina, hau ez da ordenagailu bihurgailu bakarra: Lenovo eta Asus ere horretan dabilta. Gainera, Apple eta Samsung beraien tableta ordenagailu moduan ibiltzeko garatzen ari dira. Agian, 2017. urtea urte garrantzitsua izango da ordenagailu eramangarriak ordezkatzeko joan daitezeko. Ordenagailu bihurgailuak egiten dituzten hobekuntzetan egongo da gakoa.

Mugikorrak

Zein bidetatik etorriko ote dira berrikuntzak telefono mugikorretan... Mugikorrei dagokienez, badirudi ez dela tamaina txikituko; izan ere, gaur egungo aplikazioak erabili eta Internetera konektatzeko, bost eta sei hazbeteko pantailak behar ditugu. Bada, alor honetan jada Samsung eta Apple-ek patenteak dituzte tolestean diren pantailak egiteko. Horrela, hiru edo lau hazbeteko tamainarekin, gaur egungo pantailen modukoa izango genuke. Edo eta gaur egungo pantaila tolestuko bagenu, tableten antzeko pantaila. Ziurrenik, 2017an ikusiko ditugu tolestean diren lehenengo pantailadun mugikorrak. ■

Negu zaporeko ekintzak

Gaztain jana

Azaroaren 5ean, urtero bezala, Gaztain Jana egin genuen Itsasondon. Iaz bezala, herriko plazan egitea erabaki zen, jendea gerturatzeko aukera gehiago zegoelako eta eguraldi txarra eginez gero leku aproposa zelako.

Eguraldiak lagundu ez zuenez, arratsaldean mendi buelta egiteko plana ezin izan zen burutu, baina aurreikusita zegoen bezala, 17:30ean elkartu eta Kulturgunean pelikula bat ikusi zuten haurrek. Gustura ibili ziren epeletan.

Bitartean, herriko plazan, suak pizten hasi ziren, gaztainak 19:00ak alderako prest egon zitezten.

Nahiz eta euria eta hotza egin, jende mordoia elkartu ginen, eta suaren epelean, gaztainekin, txorizo pintxoekin, sagardoarekin eta ardoarekin giro polita izan genuen.■



Olentzero eta Mari Domingi

Urtero bezala, Gabon hauetan ere Olentzero eta Mari Domingiri jaitsieran merezitako ongi etorria emateko elkartu ginen herriko haur eta heldu, baserritarrez dotore jantzita!

Ohitura jarraituz, goizeko 10:00etan elkartu, eta herrian zehar, trikitalariekin gabon kantak abestuz ibili ginen kalejiran.

Giro hotza zegoen, eta euri tanta batzuk ere bota zituen, baina horrek ez zituen herritarrak atzera bota, Elkarrekin prestatutako hamaiketakoaren ondoren! Berrito ere eskertu beharra elkarteko bazkideei eskaini ziguten hamaiketakoa!

Behin indarrak hartuta, ibilbidea jarraitu eta plaza iristerakoan, han ikusi genituen Olentzero eta Mari Domingi menditik jaisten.

Haur guztiak ilaran jarri eta banaka-banaka, nahi zuten haurrak bikotearengana hurbildu ziren, eta beraien ilusioak, ametsak... kontatu zizkieten, eta gutunak eman.■



Azaroak 25

Zoritxarrez, aurten ere azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egin behar izan genuen, egunerokotasunean emakumeok jasaten dugun indarkeria gaitzesteko. Eguneroko albiste dira emakumeen erailketak, eta telebistan ikusten ez baditugu ere, eraso psikologikoak jasan behar izaten dituzte hainbat eta hainbat emakumek. Hori horrela, hainbat ekintza eraman genituen aurrera.

Lehenik, arratsaldeko 18:00etan elkarretaratzea egin genuen herriko plazan. Jarraian, bi laburmetraia ikusi genituen kulturgunean eta amaitzeko, txokolatea eman zuten jubilatuen elkartean. ■



Desentxufatuak

Azaroaren 26an, eskolako aterpean "Desentxufatuak" antzezlanaren ezaugarriak zuten Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktore ezagunak: bi euskara ikasle, "munduko euskaldun berririk zaharrenak"; berrogei urte daramatzate euskaltegian eta oraindik... hor dabilta, bada, gaitasun agiria lortu ezinik! Beraien ilusioak, desioak, baita kexak eta haserreak ere azaltzen dizkigute, euskara maite dute, baina baita gorroto ere. Obsesio bihurtzen zaie eta honekin lotuta, nola ez, baita sexu kontuak ere.

Ederki eraman zuten aurrera antzezpena, umorea eta ironia uztartuz, ikusle guztien gozamenerako. ■



Errifaren zozketa

Urtarrilaren 6an aurtengo herri ekimenaren errifaren zozketa egin genuen "Errefuxiatuak Ongi-Etorri" lelopean, eta 0747 izan zen zenbaki saritua. Joseba eta Maider izan ziren saridunak; zorionak, bikote!

Eskerrik asko, beste behin, zuen aletxoak jarri duzuen guztioi, eta jakin dezazuen, errefuxiatuei ongi etorriak izango direla adierazteko hainbat ekimen egingo ditugu herrian; beraz, adi egon deialdiei. ■



Irasagar eta mermelada ikastaroak

Azaroaren 9an Jubilatu Elkartean egon zirenek ederki ikasi zuten menbrilloa eta mermelada egiten, Rosariok eta Rosik emandako azalpenak jarraituz. Hona hemen errezetak:

Irasagar

Osagaiak: 2kg errezil sagar (irasagarrekin ere egin daiteke); 1kg azukrea; ½ limoia

Egiteko era:

- Bezperan sagarrak ebaki azal eta guzti, haziak kendu eta azukretan beratzen utzi 24 orduz.
- Egosten jarri ½ limoiarekin eta irakiten hasten denean tarteka eragin, ez eransteke, ordubetez edo gehiagoz, kutxarekin hartu eta erortzen dela ikusi arte.
- Limoia azalak kendu, turmisarekin pasatu eta irakin arte utzi.
- Ontzira pasatu, eta hoztutakoan, egun batzuk pasatu ondoren, prest dago. Baita kongelatzeko ere, nahi izanez gero.



Mermelada

Osagaiak: 800gr laranja; 500gr azukre eta bi limoi.

Egiteko era:

- Laranja zuritu, gaineko azal zuria kenduz.
- Laranja azalei ere barruko zuria kendu, gozago nahi badugu.
- 40 minutuz egosi laranja eta azal zatiak ezer bota gabe.
- 2 limoien zukua eta azukrea gehitu eta beste 10' - 15' gehiagoz egosi.
- Txinoan pasatu, eta ondoren, kongelatu daiteke edo Maria bainuan eduki 30'.

Euskararen aldeko murala

Joan zen azaroaren 4an euskararen aldeko murala margotzeko auzolana izan genuen, alboan arbel bat ipiniz gaizki esandako hitz nahiz esaeren zuzenketak egiteko.

Dakizuen bezala, gure herria arnagunea da, hau da, gure herrian euskarak lasai hartzen du arnas, erabilera arrunteko hizkuntza da, bai kale bizitzan, bai familian, bai lagunartean eta baita lan munduan ere. Baina, azkenaldian sumatu dugu, euskara erabili arren, beronen kalitatea ez dela hain ona, beraz, egoera honi buelta eman nahi diogu, eta zenbait ekimenen bitartez, herritar guztiak inplikatzeko lortu nahi dugu, euskara guztiona delako eta guztiontzat nahi dugulako. Beraz, arbel hau erabiltzera gonbidatu nahi zaituztegu, eskolatik hasi, arratsaldeak plazan pasatzen dituzuen guraso eta haurrak animatuz, eta herritar oro inplikatu arte. ■



Harrera eguna

2016. urte hasieran Ongizate batzordean harrera plana landu genuen, eta azaroaren 15ean plan horren lehen saio informatiboa egin genuen. Lantaldearen, nahiz parte hartzaileen balorazioa oso ona izan da.

Informazio saiurako nazionalitate ezberdinetako 28 pertsoneri bidali zitzaizen eskutitza, denak 2016. urtean ltsasondon errolatuak

18:00etan elkartu ginen udaletxean eta eragile ezberdinen aurkezpenak egin genituen. Ondoren, herriko baliabide gida banatu genuen euskaraz, nahiz hainbat hizkuntzetara moldatuta. Ostean, herriko baliabide eta funtzionamenduaren inguruko informazioa eskaini zen udaletxean, eta amaitzeko, udaletxeko instalazioak nahiz herriko hainbat txoko ezagutu genituen. Harrera egun hauen helburua elkar ezagutzea, informazioa eskaintzea eta euren iritzi nahiz eskaerak jasotzea da. Bestetik, herriaren parte-hartzea sustatzea da, batzordeetan, jaietan... herri mugimendua indartzuz. ■



Urkiara bidean

Kaleko zaratatik ihes egin nahi duenak aukera samurra du ltsasondon: Urkiko auzorako bidea erakusten diguten markak jarraitu besterik ez du. Bide erosoan ordubete inguru eman ondoren, erreka gurutzatzea tokatuko zaio, eta aurrean izango ditu Urkiko parajeak.

Garai batean, kalean ere, honen antzeko itxura zuen paisaiak; baina, aurrerapenak ere bere atzealdea nonbait, bakea ezinezko bihurtu arte.

Garai bateko eskolak eta frontoiak ematen diguten aukera aprobetxatuz, Urkiko elkartearekin batera, itsasondoarrantzat aterpe egoki bat jarriko dugu martxan, nahi duten guztiek egun (eta gau) pasa mendian egiteko aukera eduki dezaten. ■

Kantu afaria

Joan zen azaroaren 18an Kantu Afaria izan genuen Arbelaitz elkartean. Urtero bezala, Kuxkuxtu txarangako kideak zertxobait lehenago iritsi ziren, eta trago batzuk hartzen genituen bitartean giroa alaitu ziguten euskal doinu ederrekin. Afaltzeko orduan, afari ederrenen ondoren, abesti liburuxka esku artean genuela saio bikaina izan genuen. Amaitzean, gaua motz geratu ez zedin, karaokea izan genuen. Giro apartearen ibili ginen, beraz, datorren urterako animatu! ■



(natura)

Artisau xaboia

Astero, sukaldean erabilitako olio botatzen dugu birziklatzeko edukiontzietara. Baina, zuzenean guk geuk berrerabiltzeko modua ere badago.

Ontziak edo arropa garbitzeko xaboia egin dezakegu olio horrekin.

Errezeta:

- 1,5 litro olio (koko olioarekin nahastuz gero, apartsuagoa izango da xaboia)
- 212 gr soda kaustiko
- 400 ml ur
- Labanda edo limoi olio esentziala
- Eskularruak
- Sukaldeko termometroa
- Kristalezko ontzia
- Lapiko bat

Alde batetik, soda eta ura nahastu behar ditugu

(Kristalezko ontzi handi batean, kontu handiz ura bota, soda neurtu ondoren. Ondo nahastu. Erreakzio kimikoaren ondorioz, temperatura asko igokoa da, eta 45ºra jaitasi arte itxaron beharko dugu).


Bestetik, iragazitako olio 45ºra igokoa dugu ontzi batean, su baxuan.

Biak temperatura berean ditugunean, batidora batekin, ura olio dugun ontzian piskanaka bota eta irabiatzen joango gara, mahonesa lodi bat dirudien masa lortu arte.

Momentu horretan, gustuko dugun olio esentzialaren 10 ml bota eta ongi nahasiko dugu.

Ondoren, gure xaboiarentzat prest dugun moldean botako dugu masa, eta 24 orduz hozten utziko dugu, moztetari ekin aurretik.

Xaboiak moztu ondoren, 30 egunez lehortzen utzi beharko ditugu, eta jadanik, erabiltzeko prest daude.■



Maddalen Sarasola



(errezeta)

Orburuen salteatua, baratxuri fresko eta otarrainxkekin

Osagarriak:

- 3 orburu
- 3 otarrainxka
- Baratxuri freskoa
- Irina
- Gatza
- Ardo zuria

Elaborazioa

Pertsonako hiru orburu jarriko ditugu garbituta eta azala kenduta. Garbitzerakoan, txortena utziko diegu.

Eltze batean, urarekin eta irinarekin 25-30 minutuan irakiten edukiko ditugu, eta egosi ondoren, ur hotzetan hoztuko ditugu.

Baratxuri freskoak zati txikitik egin eta zartagi batean gorrituko ditugu. Otarrainxkak zuritu, eta burua mantenduz, hauek ere zartagira botako ditugu. Gero, irin pixka bat gehitu eta orburuak botako ditugu. Ardo zuri kopa bat bota eta dena ondo nahastu eta murriztu dezan utziko dugu. Platerean jarri eta mahaira zerbitzatzeko pronto izango dugu.■

* Errezeta honetan, otarrainxkak gehiegi ez egiteak du garrantzia.



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitetzen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Arazo hori 16 urteko gazteen artean ematen da.	Arazo hori 16 urteko gazteen artean gertatzen da.
Hori, telefonoz deitzen jakingo dezu.	Hori, telefonotik deituta jakingo dezu.
Euro bategatik erosi dut goxoki hau.	Euro batean erosi dut goxoki hau.

Euskaraz bai, umorea ere bai

Lazkao txikiri honela galdetu omen zioten:

- Zuek zenbat senide izan zarete?
- Gu zazpi –Lazkao txikik-. Hiru arrea eta lau anai.
- Eta bizi?
- Bizi, ni bakarrik.
- Eta besteak?
- Ez, haiek lana egiten dute.

Albisteak

Datorren udaberrian zeharkatuko ditu KORRIKAK Euskal Herri osoko bi-deak eta errepideak, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean. Otxandiotik Iruñera joko du 20. KORRIKAK.

Goierrin goizaldeko 2.09 –etan sartuko da Zumarragako kaleak zeharkatuz eta Itsasondon goizeko 4.00-ak aldera korrika egiteko aukera izango dugu.

Itsasondon Korrika batzordea sortu berri dugu. Parte hartu nahi baduzu gerturatu otsailaren 15ean 18:00etan udaletxera.

Informazio gehiago: www.korrika.eus

Liburutegia



Maitasuna eta liburuak

Maitasuna bizipen paregabea da, eta bakoitzak bere erara sentitzen du. Liburuak gure sentimenduei izena jartzen laguntzen digute. Hemen dituzue aukera batzuk, istorio onez eta alegiazko ilustrazioz beteta.

Ez daukat karneta oraindik!

Liburutegiko bazkide egitea oso erraza da, eta doakoa. Eskatera-orri bat betetzea besterik ez duzu Liburutegiko karnetari Ester, gure liburutegitik ezekiz, Euskadiko Liburutegi sarea osatzen duten liburutegi guztietatik ere atera ahalko dituzu dokumentuak maileguan.

Karnetarekin mailegu zerbitzua erabili ahalko duzu, eta horri esker, dokumentuak etxera eraman. Guztira sei dokumentu eraman ahalko dituzu etxera: hiru liburu eta hiru ikus-entzunezko (DVD, CD-ROM, CD-AUDIO).

Animatu eta zatoz liburutegira!



Bazkide gehiago nahi dituzte Arbel-Aitz elkartean

Elkarteko bazkide egiteko kanpaina jarri du martxan Arbel-Aitz-ek. 20 bazkide behar dituzte beraien helburuak bete, eta horrela, elkartea bizirik mantentzeko.

Baldintzak honakoak dira: bazkide berria egiteko sarrera moduan 500€ ordaintzea eta hileko kuota 20€.

Interesa duenak, astearteetan 18:30etatik 20:00etara elkartera gerturatu edo 660 055 845 telefono zenbakira deitu dezake.

Oharrak



OTSAILA

- 04 Auzolan eguna | Mural erraldoiak
- 07, 14, 21, 28 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00) plazan
- 09 Aralar bizirik informazio saioa | 19:00-20:30 Kulturgunean
- 11 EHko Mus txapelketa | 16:00.
- 13 Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00.
- 14 "Zaindu zure osasuna bizkar hezuraren bitartez", Xabier Mendaraz kiropraktikoaren eskutik | 18:00tan Kulturgunean
- 15 Herri Bizitza batzordea | 19:00etan.
- 18 Ijitto eguna
- 22 Muffins eta cupcake-ak egiteko sukaldaritza tailerra | 17:30etan Bizi Nahi elkartean.
- 23 Bingoa Bizi Nahi elkartean | 17:00.
- 23 Film | Dokumental emanaldia (19:00 kulturgunean)
- 25 Makrobiotika tailerra
- 27 Ongizate batzordea | 19:00etan.
- 28 Memoria tailerra Bizi Nahi elkartean | 18:00.

MARTXOA

- 07, 14, 21, 28 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00) plazan
- 08 Emakumearen nazioarteko eguna | Afaria
- 09 Hitzaldia | Itturri Txiki guraso elkarteak antolatuta
- 13 Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan.
- 15 Herri Bizitza batzordea | 19:00etan
- 18 Makrobiotika tailerra | Udaberriko sukalde, gibelaren garbiketa
- 27 Ongizate batzordea | 19:00etan.
- 28 Memoria tailerra Bizi Nahi elkartean | 18:00etan.
- 30 Bingoa Bizi Nahi elkartean | 17:00etan.
- 30 Film | Dokumental emanaldia (19:00 kulturgunean)
- 30 XX. Korrika hasiera

APIRILA

- 02 Haur-liburu eguna
- 04 Soinketa (16:00) eta Tipi Tapa paseoa (17:00) plazan
- 07 Korrika txikia
- 08 Korrika Itsasondotik goizeko 04:00ak aldera
- 10 Lurralde Antolamendua eta Hirigintza batzordea | 19:00etan
- 10 Ongizate batzordea | 19:00etan
- 12 Herri Bizitza batzordea | 19:00etan
- 18 Odol emaileak
- 22 Makrobiotika tailerra | Zer da menu orekatua, aste osorako menua programatzea
- 23 Liburu eguna
- 25 Memoria tailerra Bizi Nahi elkartean | 18:00etan
- 26 Elikadura osasuntsua kirolarientzat
- 27 Bingoa Bizi Nahi elkartean | 17:00etan
- 27 Film | Dokumental emanaldia (19:00 kulturgunean)

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((35. zk)) Otsaila-Apirila 2017

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainara Urteaga
 Amaia Salegi
 Aranzadi
 Axier Arbilla
 Bizi Nahi jubilatuta elkartea
 Danel Etxeberria
 Ekaitz Arruti
 Erkuden Mendizabal
 Eskolako haurrak
 Haurreskolako hezitzaileak
 Iratxe Ibarra (UEMA)
 Itsaso Urretagoiena
 Iturritxiki Guraso Elkartea
 Maddalen Sarasola
 Maddi Alberdi
 Maite Lasa
 Mikel Mendizabal
 Niko Rodriguez
 Ruth Gomez
 Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-reoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
 itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia

GOGORAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 APIRILEAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN

